

**CENTRO PARA EL AHORRO Y DESARROLLO ENERGETICO Y MINERO, S.A.REN**  
**KONTRATAZIO BATZORDEAREN AKTA**

Bilbon, 2019ko apirilaren 9an

Idazkariak aurretiaz egindako deialdiari jarraiki, 2019ko apirilaren 2ko datarekin, CENTRO PARA EL AHORRO Y DESARROLLO ENERGETICO Y MINERO, S.A. (CADEM) Kontratazio Batzordea bildu da, eta bertan honako kide hauek izan dira:

**BATZORDEKIDEAK**

Javier Marques Gonzalez jauna, EEEko Zuzendari Teknikoa.

Álvaro Colón Barriocanal jauna, EEEko Idazkari Nagusia

Carlos Aguirre Arana jauna, EEEko G.B. eta Z.O.ko zuzendaria, Enrique Monasterio Beñaran jaunaren orde, EEEko Garapen eta Berrikuntzako zuzendaria dena, bertaratu ezina adierazi duena.

**IDAZKARIA EZ BATZORDEKIDEA**

Iker Alaña Zorrilla jauna, EEEko Kontratazio Ataleko arduraduna.

Rosa Madina andreak, EEEko Ekonomia-Finantzako zuzendariak, bertaratze ezina adierazi du.

Monasterio jaunaren bertaratze ezina dela eta, Marques Jaunak Presidente gisa jardungo du.

Gai-zerrenda jorratzeko, honako eduki hauen arabera:

1. *Kontratazio prozeduraren hasieraren memoria justifikagarria eta horri lotutako agiriak.*
  - *CAD/19/001. Lau eguzki planten diseinua, proiektuaren ingeniari-tza, materialen hornitza, eta gauzatze eta eraikitzearen kontratua.*
2. *Kontratu txikien zerrenda berrikustea.*
3. *2019 urteko Kontratazio Planaren proposamena onartzea, hala badagokio*
4. *Beste gai batzuk.*
5. *Bileraren akta irakurtzea eta, hala badagokio, onartzea.*

1. **Kontratazio prozeduraren hasieraren memoria justifikagarria eta horri lotutako agiriak.**

Batzordekideek, kontratuaren arduradunak aurkeztutako memoria justifikagarria eta honi dagokion Klausula Administratibo Berezien Agiriak (KABA) eta Zehaztapen Tekniko Partikularrenak aztertu dituzte, honako kontratazio espediente hauei lotuta:

- *CAD/19/001. Lau eguzki planten diseinua, proiektuaren ingeniari-tza, materialen hornitza, eta gauzatze eta eraikitzearen kontratua.*

Batzordekideek egiaztatzen dute bi dokumentu horiek, kontratazio espedienterako beharrezkoak direnak, SPKLen aurreikusten diren baldintzak betez egin direla, eta kontratazio organoari bidaliko zaizkio, SPKLen 117. artikulua

aplikazioari jarraituz, egokitzat jotzen baldin badu, ebazpen arrazoitua eman dezan, kontratazio espedienteak onartuz eta lizitazio prozeduraren hasierari ekinez.

**2. Kontratu txikien zerrenda berrikustea.**

Batzordekideei CADEMek esleitutako kontratu txikien zerrendaren berri eman zaie, Kontratazio Batzorde honen azken bileratik hona egindakoak, hain zuzen ere.

**3. 2019 urteko Kontratazio Planaren proposamena onartzea, hala badagokio.**

Batzordekideek 2019ko Kontratazioaren Urteko Planaren proposamena aztertu eta onartu egin dute, eta kontratazio organoari bidaliko zaio ebazpen arrazoitua eman dezan 2019ko Kontratazioaren Urteko Plana onartuz, egokitzat jotzen baldin badu.


**4. Beste gai batzuk.**

Ez da beste gairik izan.


**5. Bileraren akta irakurtzea eta, hala badagokio, onartzea.**

Bileraren akta idazteari ekin zaio eta irakurri ondoren, aho batez izan da onartua.

Bilera amaitu eta gero, akta hau sinatzeko eman zaie, eta bertan CENTRO PARA EL AHORRO Y DESARROLLO ENERGETICO Y MINERO, S.A.ren Kontratazio Batzordeko presidentek eta idazkariak izenpetu dute.



Javier Marqués González jn.  
Kontratazio Batzordeko presidentea



Iker Alaña Zorrilla jn.  
Kontratazio Batzordeko idazkaria